

Klimaren aldaketa: anormaltasun berrira ohitzeko tentazioa

Klimaren gailurra burutu du irailaren 23an Nazio Batuen Erakundeak New Yorkeko egoitzan. Agintariek hitzartu dute, hamaikagarrenez, neurriak hartuko dituztela klimaren aldaketa eragozteko eta dagoeneko aldatua den klimaren gorabehera jendeak aurre egin ahal izateko. Baina zerekin alderatuta ezarritzen dira helburuak?

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

“New Normal” irakurtzen da gero eta sarriago. Alegia, normaltasun berria, lehen ez baina gaur dagoeneko normala omen dena. Aldaketa handiak gertatu ostean ezarri den normalitatea. Baina gauzak orain *new normal* direla onartzeak berak ez ote dakar ondorioirik?

Berrikitan Bussiness Insider ekonomiar buruzko hedabideak “*The New Normal Has Been Devastating For America*” (Normaltasun berria desastrea suertatu da AEBentzako) artikuluan Mohamed El-Erianek idatzi du *new normal* kontzeptua asmatu zutela PIMCOko ekonomialariek. PIMCO korporazioa da mundu globalizatuan agintzen duten inbertsio funtsen kudeatzaile handienetako bat.

“2008ko finantza krisiaren bihar munean sorturik —dio El-Erianek— *new normal* kontzeptuak azpimarratzen du orain normaltasunez hartu behar dela Mendebaldeko ekonomiek berriro abiatu ezin izatea zikloen jardun tipikoan. (...) Berriro goraka hasi eta ‘V’ gisako irudia eginez hazteko orde, ekonomiak mugarik gabe jarraituko duela ahul eta langabeziak ohi baino altuago”.

New normal, beraz, da onartzea mundua aldatu dela eta ezer ez dela berdin izanen. Ekonomia eta gizarte antolamenduari buruzko eztabai-

detan gero eta usuago erabiltzen da eta klimaren aldaketaz aritzean ere bai, Dawn Stoverrek *The Bulletin of the Atomic Scientists*en plazaratu “*Climate: the new abnormal*” kronikan azaldu duenez. Zientzia kontuetan berezitutako idazlea da Stover.

“Normaltasun berria” esaldia gero eta sarriagotan aurkitzen da klimaren aldaketari buruzko artikuluetan. Eurite izugarriak eta uholde handiak dira orain *new normal*. Berdin idortek, oihanetako suteak edo Artikoa olatu erraldoietan urtzea. Center for American Progressen ekintzaileek diote: “Geuk sortutako anormaltasun berrira egokitu behar dugu. Gure esku dago askoz okerragoak gertatzea ala ez”. Baina jokabide honek ere, asmo on eta guzti, arriskuak badauzka berekin.

“Anormaltasun berriaren leloarekin —idatzi du Stoverrek— klimaren ikerlariek eta komunikatzaile handiek jendeari jakinarazi nahi diote klima erotzen ari dela eta hori geldiarazteko lan egin behar dutela. Baina esaldiak justu alderantzizkoa lortzen baldin badu, zer? Benetan zabaltzen dutena bada beroketa globala, edo klimaren zoratzeta, ohiko bilakatu dela, berria baina normala?”.

Klimarekin gertatzen ari dena ez da normala, baina berria ere ez. Jendeok amnesia daukagu klimaz.

Irudian, Kate Leeming abenturazale australiarra. Leemingeke zeharkatu berria du Afrika “*Breaking the Cycle Expedition*” txangoan, 22.000 kilometro Senegaletik Somaliara. Argazia Nigerrereko paraje desertiko batean dago egin. Duela ez hainbeste, Saheleko leku hauek guztiak sabana izanak ziren, lehenago Sahara izan zen moduan. Bertako herriak gazteek nekez sinetsiko dute horrelakorik. Guregandik hurbilago, basamortu bilakatzeko bidean den Espainiako jende gehienek uste dute penintsula beti izan dela horrelakoa. Nafarroan nork sinetsiko dizu Bardeak baso izan direla orain dela gutxi arte? Jendeen pertzepzio okerra arazo larria da etorkizuna antolatzeke. Ingurumena eta baliabideak berreskuratzeko arautegietan erakundeek ahazten dituzte planetak lehen zeuzkan baliabideen kopuru, kalitate eta aniztasunak. Berreskuratzeko aukerak alferrik galtzen dituzte eta kalteak betirakotzen.

Munduko Meteorologia Elkartearen idazkari nagusi Michel Jarraudak esan duen moduan, “azken hiru hamarkadotan mundu eta eskualde mailako tenperaturek halako berraketa ezagutu dutenez, gaur 30 urte baino gutxiago dauzkaten gazte gehienak sekula bizi izan gabeak dira beroketa globalik gabeko mundu batean”.

Mundutarron memoria laburra da. AEBetako inkestek erakutsi dute bertako biztanleen hiru laurdenek ez dakitela Gerra Hotz famatua noren kontra zeukaten amerikarrek; aldiz, milaka arma atomiko dauzkate oraindik AEBek, gehienek Errusia daukatela jomuga, eta jendeak horiek normaltzat dauzka.

Zerekin alderatu?

Belaunaldi bakoitzak definitzen duenez beretzako normala zer den, etorkizunean jendeak ahaztuta eduki lezake aurreko belaunaldientzako gauzak nola ziren, horrela uko eginik aurrekoek edukitako baliabideak berreskuratu ahal izateari.

Ahazturari loturik aipatzen du Stoverrek bigarren fenomeno bat: konparaketako erreferentziak jais-tea. Daniel Pauli itsas biologoak erabiltzen omen zuen *shifting baseline syndrome* kontzeptua, erreferentzia beharrezko sindromea. “Arrantza



ikertzen duten zientzialariek belau-naldi bakoitzean gutxieneko arrain kopurua definitzerakoan alderatzen dute beren ikasketak hasitakoan ezagutu zutenarekin, kopuruetan bezala espezieen aniztasunean. Hurrengo belaunaldia datorrenera-ko arrain kopurua urritu da baina gazteok oinarritzat erabiliko dute berek ezagututakoa”. Bakoitza horrela egokitzen delarik berak eza-gutu duenera, arraiak kopuruz eta espeziez urrituz doaz horiek berres-kuratzeko helburuak ere ez direlako inoiz ondo ezartzen.

Zientzialariak horrela despista-tzen baldin badira, ezin gutxiago nahastu herritarrak. Azkenean, oihan basatirik, bideratu gabeko errekarik, kostalde librerik eta padu-

rarik gabeko munduari normala deritzo jendeak, sekula ezagutu ez dituelako horiek beren oparotasun betean.

“Konparaketarako erreferentziak apaltze horrek arazo nagusi bat dakar: nola sartuko diozu buruan jendeari mundua aldaketa izugarrietan murgilduta dagoela, beroketa globala eta espezieen suntsiketa masiboa gertatzen, ez badira gai antzemateko urte gutxi batzuetan jazotzen diren aldaketak baizik? Nola ohartarazi galdutakoa berres-kuratzeko ere posible litzatekeela?”.

Dawn Stoverrek uste du historia-lariek lan handia daukatela herritarrei erakusten lehenago mundua nolakoa izana den, grafikoak eta irudiak, ahal direnean argazkiak,

erabili behar dituztela jendeei begien aurrean jartzeko lehen mun-dua nolakoa izana den. Ekintzaile ekologistek herri eta hirietako zaharrenak ere erabili beharko lituzkete, gazteagoei erakutsi diezaieten nola aldatu den ingurumena.

“Gutxi ikertu dira –dio Stove-rrek– jendeek aldaketan den mun-duaz dauzkaten pertzepzioak, eta aldi berean, jendearen pertzepziook garrantzia berezia dute klimaren aldaketaren kontrako borrokaren eraginkortasunean. (...) Jendea prest dago aldaketak onartzeko bere bizi-rautea arriskuan dagoenean, baina [arriskuez ez ohartzeagatik] iruditzen zaio azpiegituretan, energian, zergetan eta arauketan egin beharreko aldaketak garestiegiak direla”.

Bitartean, klimaren aldaketa era-gozteko eta dagoeneko gertatuta-kora egokitze (mitigation eta adap-tation) estrategiak gero eta oinarri apalagoen gainean eraiki dira. Lehen eskuragai zeuden ura, arraina eta gainerako baliabideak abiapuntu urriegietan kalkulatu dira, eta alde-rantziz, horiek kontserbatzeko estrategientzako kalkulu baikorre-giak ezarri.

Adibide nabarmen bat aipatzen du Stoverrek, sekula ikusi gabeko lehortea jasaten ari den Kalifornia dela eta. *Environmental Research Letters* aldizkariak erakutsi du Kaliforni-ai baimenduta dauzkan ur bolumenek denetara osatzen dute urte batean herrialdean euriak uzten dien guztia halako bost. Fisikoki ezi-nezkoa, idortearen eragi-na okerragotzen duena... baina lege diren papere-tan bildua. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

